

2005EKO UZTAILAREN 13KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko uztailaren hamahiruan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi eta Arantxa Zumelaga Agirre.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Alkatearen eskariz Inazio Barandiaran Aldasoro zinegotzia etorri da baita ere.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005eko ekainaren 15ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Azertu ondoren 2005eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 6 zbk.dun fakturen zerrenda, BERREHUN ETA BERROGEITA LAU MILA BOSTEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI euro eta HOGIETA BOST zentimo (244.572,25 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- MIKELAR KALEKO BIRRURBANIZAZIO LANEN LIKIDAZIOA.-

Jarraian Mikelar Kaleko birrurbanizazio lanen laugarren eta azkena den zertifikazioa aurkezten da bere onarpenerako. Zertifikazio hau HAMA ZAZPI MILA ZAZPIREHUN ETA BERROGEITA ZAZPI EURO ETA HOGIETA BEDERATZI ZENTIMOtakoa (17.747,29 €) da eta Udal Teknikariaren oniritzia darama. Lan hauek Construcciones Fresneda, S.L. enpresa ari da egiten.

Tokiko Gobernu Batzarrak, zertifikazioa azertu ondoren berau onartzea erabakitzen du bertaratutako guztien aldeko botuekin.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena azertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etkez-Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 284 zbk.dun esped.: zerbitzutik baja ematea beste herri batera bizitzera joan delako.
- 563 zbk.dun esped.: uztailaren 4tik 9ra, egunean ordu erdiko zerbitzua ematea etxeko karrerako garbiketa egiteko. Onuradunak jarri beharrekoa zerbitzu kostuaren %15a izango da.
- 247 zbk.dun esped.: onuradunaren eskariz, astean 3 egunetan egunean 2 ordutik astean 2 egunetan egunean 2 ordutara zerbitzua gutxitzea. Onuradunak jarri beharrekoa zerbitzu kostuaren %61a da.
- 564 zbk.dun esped.: onuradunaren eskariz, 2005eko uztailaren 1etik aurrera zerbitzua murriztea, astean 5 egunetan egunean 2 ordutik astean 5 egunetan egunean ordu terdira. Onuradunak jarri beharrekoa zerbitzu kostuaren %15a da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak. -

- 284 zbk.dun esped.: Etxebizitzaren alokairu eta mantenimendurako laguntzetatik baja ematea 2005eko uztailaren 31 data, bizitzera beste herri batetara dihoalako.

V.- BILERAREN AMAIERA. -

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.